

# *In memoriam:* Piarres Andiazabal

EDURNE ALEGRIA

Hain aztoratuta gauzkan pandemia garai honetan, hainbat euskaltzale joan zaizkigu zarata handirik atera gabe; haien artean, Piarres Andiazabal kalonjea. Urruñako Plaza Errotan sortua 1923ko urtarrilaren 18an eta 2020ko maiatzaren 16an zendua Kanbo-ko Arditeya erretreta etxean, 97 urte eginda, ondo betetako bizitza baten ondoren. Ama urruñarra zuen, eta aita Azkainetik etorria eiherazain lanetara. Hogeita lau urterekin apeztu, eta berehala ekin zion irakasle lanari, Hazparneko mutilen kolegio pribatuan lehenik eta Uztaritzeko Seminario Ttipian gerora. 1979. urtetik aurrera, Baionako elizbarrutiko administrazio karguak bete zituen, hala nola elizbarruti arteko seminarioaren administratzailearena eta Baionako elizbarruti etxearen arduradunarena. Karguez gain, 1994ko apirilaren 20an, Baionako katedraleko kalonje titulua jaso zuen.

Halere, zerbait azpimarratzekoa bada urruñar honen bizitzan, euskara arloan egin

zuen lan eskerga da, idazle, itzultzaile eta musikari gisa. Mila bederatzehun eta berrogeita hamarrekoko hamarkadaz geroztik, zenbait hedabidetako kolaboratzailea izan zen, Vatikanoko II. kontzilioko ideiei jarraikiz, *Gernika* aldizkarian, *Herria* astekarian eta Lapurdi Irratian, non erlijio gaietan euskarazko kronika bat astero egotea bermatzen baitzuen. Halaber, 1990az geroztik, Euskal Telebistan zabaldu euskarazko mezen Iparraldeko arduradun eta ordezkaria izan zen hogeit bat urtez. *Gogoeta astea* izeneko kristau pentsamendu taldearen sortzaile eta animatzailea ere izan zen hogeita bost bat urtez. Baina, ororen gainetik, erran daiteke Piarres Andiazabal izan dela 1964az geroztik liturgiaren euskaratze lan erraldoiaren egile nagusia Baionako elizbarrutian, eta haren ordezkaria Euskal Herriko elizbarruti arteko batzordean. Xipri Arbelbideren esanetan, «euskarazko liturgiaren aita» titulua- ren mereziduna.

Haren idazlanen artean, izenburu hauek aurkitzen ditugu:

- *Meza denborako deiak* (1961)
- *Igandetako eta bestetako salmo-leloak* (1974)
- *Igandetan Elizan*, parrokiatzat egin bilduma, hainbat aldiz berrargitaratua 1968tik 1988ra bitartean
- *Mezetako deiak* (1986-1988)

Andiazabal, *Kanta Jaunari*, Euskal Herriko parrokia abesbatzen batzordeko kidea ere bazen, eta kantutegiari lotutako bi lan plazaratu zituen: *Kantikak* (1988) euskarazko kantiken hitz bilduma eta *Euskarazko kantiken partitura bilduma organo-jotzaileentzat*.

Euskarazko liturgiaren bultzatzaile eta bideratzaile nekaezin honek Euskaltzain-

diaren aitortza jaso zuen ohorezko euskaltzain izendatu zutelarik 2000ko urriaren 27an. Geroztik, 2019ko martxoaren 28an, erakunde berak ohorezko ezaugarria eman zion, liturgiaren euskaratze lanean egile nagusietako bat izan zelako. Bestalde, 2002an, EIZIE elkarteak ohorezko bazkide egin zuen, euskal itzulpenari egindako ekarpenarengatik. EIZIEk argitaratutako *Itzulpen antologia III* liburuan aurki dezakegu haren aipamena (2002), Eustasio Etxezarretaren «Eliz testuen itzultzaileen berri» izeneko artikuluan.

Bere bizitza oparoan, ondo merezitako ohoreak ez zuen lortu, haatik, gizon isil eta apal honen irudia ezabatzea.

Goian bego.

### Resumen

El pasado 16 de mayo fallecía en Cambo, a los 97 años, el sacerdote Piarres Andiazabal. Estas líneas, escritas en su memoria y reconocimiento, trazan su larga y fructífera trayectoria vital. En primer lugar, las diferentes funciones que ejerció en la diócesis de Baiona como profesor y administrador. En segundo lugar, el ímprobo trabajo que realizó en el ámbito del euskara: asiduo colaborador de medios de comunicación vascos y traductor infatigable de textos litúrgicos, hasta el punto de merecer el título de «padre de la liturgia en lengua vasca»; sin olvidar su contribución en la recopilación de cánticos religiosos vascos. Hombre discreto, fue objeto de reconocimiento de la Academia de la Lengua Vasca, Euskaltzaindia, y de la Asociación EIZIE, quienes lo nombraron miembro honorífico de sus respectivas instituciones.

### Résumé

Le 16 mai dernier est décédé à Cambo, à l'âge de 97 ans, le chanoine Piarres Andiazabal. Dans ces lignes écrites en son hommage nous rappelons son long et fécond parcours. Tout d'abord, les différentes fonctions qu'il exerça au diocèse de Bayonne en tant qu'enseignant et administrateur. Puis l'énorme travail qu'il réalisa dans le domaine de l'euskara: collaborateur assidu des médias basques et traducteur infatigable des textes liturgiques, au point de mériter le titre de «père de la liturgie en langue basque»; sans oublier sa contribution à l'élaboration de recueils de cantiques basques. Cet homme, au caractère réservé, reçut les honneurs de l'Académie de la Langue Basque et de l'Association EIZIE, qui le nommèrent membre honorifique de leurs institutions respectives.

### Abstract

Priest Piarres Andiazabal, 97, died on May 16 in Cambo. These lines written in his memory celebrate his long and vibrant life. First, the different functions that he carried out in the diocese of Bayonne both as an instructor and as an administrator. Second, the tremendous work he achieved in the Basque language: he was a devoted collaborator in the Basque media and indefatigable translator of liturgical texts, to the extent that he well deserved the title of “father of the liturgy in the Basque language.” And let us not forget his contribution to the compilation of Basque hymns. He was a modest man who was named an honorary member of both the Royal Academy of the Basque Language and EIZIE, the Association of Translators, Correctors and Interpreters of the Basque Language.